



ONGI ETORRI! Irailak 16, astelehena **1. BLOKEA**

Iraupena	2 ordu (1. BLOKEA) 8:30/10:20	DIGITALIZAZIOA
Taldekatzea	Taldeka eserita, banakako lana.	
Materiala	- Ikasle bakoitza, bere Chromebooka (1. erabilpena izango da, kontuan hartu) - Aurkezpena (gelako pantailan aurkezteko)	
Helburua	- Chromebooka piztea eta martxan jarri, lehenengo aldia izango da eta. - Ezaugarri bereziak identifikatzea. - Oinarrizko arauak/aholkuak barneratzea. - Gmaileko baliabideak ezagutzea mezuak irakurtzeko, gordetzeko eta erantzuteko modu eraginkorren eta Netiketaren printzipioak betez.	

Egitekoak:

1. JARDUERA: AURREZAGUTZAK PIZTU

Talde handian, galdetu: (Hauek edo bestelako beste batzuk)

- Zein dispositiboa erabili zenuten Lehen Hezkuntzako eskolan?
- Nork dauka ordenagailua etxean?
- Zein da Chromebook eta PC-en arteko desberdintasuna?
- Nork bidali du noizbai Gmail mezua? Nori? Zertarako?
- "Hartzaile" atalaeen, zer esan nahi du "CC" edo "BCC"
- Ba al dakizue nola sinatu mezuak? Nola?

2. JARDUERA: ATERA ORDENAGAILUAK

- Irakasleak **sinatzeko papera** eman behar die ikasleei. Etxera eramateko eta bihar sintatuta ekartzeko. (Papera ordenagailuarekin batera dago).
- Irakasleak taldeka daude. Talde bakoitzak bere **MATERIALAREN ZAINZAILA** dauka.
- **MATERIALAREN ZAINZAILAK** armairutik ordenagailuak aterako ditu eta banan-banan mahaietara eramango ditu.
- Behin batatuta, **irakasleak esan arte, ez dute ordenagailuak piztuko.**

Lehenengo eguna denez, oso garrantzitsua da ordenagailuen BANAKETA-JASOKETA-ren prozedura modu egokian egitea.

1. Irakasleak lehenengo taldeko **MATERIALAREN ZAINZAILARI** taldekideen izenak eta zerrendaren zenbakiak esango dizkio.
2. **MATERIALAREN ZAINZAILA** altxatuko da eta banan-banan mahaietara ordenagailuak



eramango ditu.

3. Lehenengo taldeak bukatu ondoren, bigarrena hasiko da.

3. JARDUERA: AURKEZPENA

- Irakasleak, pantailan, [aurkezpena](#) jartzen du eta hasten da azaltzen.
- **8. gardenkira arte "00. ERABILTZAILEAK" ikasleek ez dute ordenagailua piztuko.**

4. JARDUERA: GMAIL

- Aurreko aurkezpena bukatu ondoren...

(Zuk, irakasle, esan ikasleei ahoz)

1. Sartu Gmailen.
2. Irakurri "IRAKURKETA PLANA" k bidali duen mezua. ("Sarrera ontzian" dago)
Mezuan, jarraibideak daude.

a. **Lehenengo mezua hau da:**

Egun on, lagun.

Mezu honen bidez ongietorria eman nahi dizut Koldo Mitxelena ikastetxera.

Bide batez, mesede bat eskatu nahi dizut: erantzun mezu honi esanez zeintzuk ziren poltsan ekarri zenituen 3 objektuak eta zergatik ekarri zenituen.

Zure mezuak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Idatzi agurra. Hasieran eta bukaeran.
2. Objektuak idatzi beltzez. Bestea, normal.
3. Bilatu Interneten zurearen antzeko objekturen baten irudia eta erantsi mezuan.
Gogoan izan irudi libreak izan behar direla. Ez badakizu nola topatu, galdetu irakasleari.

Mezua bidali baino lehenago, galdetu taldekideei edo irakasleari ea ondo idatzita dagoen.

Mezua bidali bezain pronto, nik erantzungo dizut.

Irakurri beste mezu hori eta jarraitu jarraibideak.

Eskerrik asko.

Oraintxe arte!

Sergio.

3. Ikasleek erantzun behar diote mezuari.
4. Erantzun ondoren, automatikoki beste mezu hau jasoko dute.

a. **Bigarren mezua (ikasleek automatikoki jasoko dutena):**



Egun on berriro.

Zorionak!! Mezu hau irakurtzen ari bazara, horrek esan nahi du aurreko mezua ondo bidali duzula.

Orain, mezu berri bat zurekin dagoen irakasleari bidali behar diozu.

Galdeiozu zein den bere helbide elektronikoa.

Eta eskatu, mesedez, Gmail-i buruzko bideotutorialak pantailan jartzeko.

Tutorialak ikusi ondoren, bidali mezua zurekin dagoen irakasleari.

Nahi baduzu, aldatu letra mota, jarri sinadura edo txertatu irudiren bat.

Zer idatzi behar diozu?

1. Ez ahaztu mezuaren izenburua. Jarri: "Ongietorriko mezua"
2. Esaiozu zein den gehien gustuko duzun abestia eta zergatik.

Eskerrik asko.

Lan ederra!

Sergio.

5. **Adi, irakasle.** Ikasleek bi gauza hauek eskatuko dizkizute:

- a. Zure eposta helbidea. Emaiezu, mesedez.
- b. Tutorial hauek pantailan jartzea guztiok batera ikusteko.

Jarri eta banan-banan komentatu ea ulertu duten edo ea bazekiten.

i. **BIDEOTUTORIALAK**

- a. [Nola aldatu letra mota.](#) (2'40" arte)
- b. [Jarri sinadura mezu guztietan.](#) (3'24" arte)
- c. [Txertatu artxiboak edo irudiak.](#) (osoa)
- d. [Programatu bidalketa](#) (osoa)
- d. [Kopia ezkutuan.](#) (osoa)

6. **Bukatzeko,** bigarren mezua bidali ondoren, eta denbora agortu arte, utziezu denbora elkarri Gmaileko mezuak bidaltzeko.

OSO GARRANTZITSUA:

Gogora iezazue irainak, mehatxuak edo tontakeriak debekatuta daudela.

Gogora iezaezu irakasleak eskubidea duela ikaslearen historiala nahi duenean begiratzeko, eta eduki desegokiren bat aurkitzen badu, salatu egin dezakeela.

5. JARDUERA: ORDENAGAILUEN JASOKETA

Patiora jaitsi baino 5 bost minutu lehenago (10:15), Materialaren arduradunak ordenagailuak jaso behar ditu. Lehenengo eguna denez oso garrantzitsua da ohitura onak hartzea.

